

MUNDUARI SO

ZER GERTATUKO DA 2021 URTEAN?





Iratzar Fundazioa

Zuatzu enpresa parkea

Easo eraikina 4, behea

20018 Donostia (Euskal Herria)

fundazioa@iratzar.eus

www.iratzar.eus

2021eko Maiatzaren 5ean



-MUNDUARI SO-

AITZIN HITZA

Izurrite globalak 2020. urtea ezaugarritu du eta COVID-19ak utzitako ondorio politiko, sozial eta ekonomikoek 2021. urtea markatuko dutela dirudi. Ziurgabetasuna erdigunean dagoela argi izanik, esan daiteke kontraesanen garaian bizi garela. Konkurrentzia ala elkarlana, berehalakotasuna ala epe luzerako begirada, etorkizun beltza edo aukera leihoak.

Izurriteak osasun parametroak gainditu ditu eta atal soziala eta ekonomikoa ataka zail batera eraman ditu. Mugimendu bortitz honek jendartearen egiturak astindu ditu, eta esan genezake mundua begiratzeko beste zume batzuk mahai gaineratu dituela. Horietariko batzuei begiratuko diegu, gertatzen ari diren aldaketez jabetzeko eta gure zeregin politiko-diplomatikoa hobeto kokatu ahal izateko. Hein handi batean, gaurko egoera gu bezalako herrientzat aukera ere izan daitekeelako gaitasun politikoak, erabakimen gune bat eta eskumen ziur eta erabatekoak lortu ahal izateko. Hori baita egin behar dugun bidea

gure jendartearen ongizate sozial eta politikoa bermatzeko eta Herrien kontzertuan toki bat erdiesteko.

Gauzak horrela, 2021. urtea ez da 2020a izango, eta argipen eta egitura erabakiak hartzeko denboraldia izan daitekeela esan dezakegu. Ziklo ekonomikoaren teoriaren oinarritzko arau baten arabera, eragile baten beharra dago krisi edota atzeraldi ekonomikoa gerta dadin. 2020an, munduko ekonomia egoera larri batera eraman zuten, ez eragile batek, bi gertakizunek baizik (eta, gainera, biek efektu sinergikoa izan zuten):

- Petrolioaren prezio gerla eta jaitsiera nabarmena.
- Covid-19 izurritea.

Zantzu guztien arabera, Izurritea hedatu ez balitz ere, ekonomiaren atzeraldia berdin-berdin gertatuko zen. 2016tik hazkunde tasak



geldotzen ari zirelako, nazioarteko merkataritzaren joera behera zihoalako eta, oro har, ekonomia nahiko ahulduta zegoelako. Halere, hainbat gobernuk eta banku zentralek egin zuten injekzio finantzarioak eta finantza boterearen, estatuaren eta aktore pribatuaren arteko fusioak galga jarri zioten krisiari.

Krisi organikoaren testuinguruan, izurritearen aurkako borrokak atzeraldi ekonomikoa areagotu du. Eta, munduko herrialdeen arteko desparekotasunak nabarmentzearekin batera, agerian utzi ditu gaurko nazioarteko sistemaren ahuleziak, merkatuei buruzko mitoak eta gaizki deituriko gobernantza globalaren porrota. Gainera, Covid-19ak gaurdaino ekoizteko, kontsumitzeko eta gure artean erlazionatzeko izan ditugun ereduak murriztu eta aldatzera behartu gaitu. Osasun izurriteaz harago doan fenomeno utzi digu birus txikiak.





-2021ERA BEGIRAKO MUNDUKO JOERAK-

JOERA EKONOMIKOAK

"Munduko aurreikuspen ekonomikoak" izeneko txosten berrian, Nazioarteko Diru Funtsak (NDF) %6raino hobetu ditu 2021ean eta 2022an munduko ekonomiak izango dituen hazkunde-aurreikuspenak. Txosten horretan, proiektio makroekonomikoak eguneratu ditu, lehen %5,5 eta %4,2 baitziren, hurrenez hurren. Era berean, txostenak dioenez, aurreikuspenak oro har hobetu diren arren, horiek oso desberdinak dira, ez bakarrik nazioen barruan, baita herrialde eta eskualde geografikoen artean ere. Bi motorrek bultzatu dute susperraldia: Ameriketako Estatu Batuek eta Txinak; izan ere, Covid-19aren krisia baino lehen aurreikusitakoa baino gehiago hazi dira herrialde horiek 2020. urtearen amaieran. Herrialde horiek "salbuespena dira, ez araua", zehaztu du Nazioarteko Diru Funtsak. Susperraldi azkarragoa albiste ona den arren, nahi ez diren inpaktuak ere eragin ditzake, AEBen hazkundera azkartzeak interes-tasak azkar igotzea eragin dezakeelako. Horrek finantza-baldintzak gogortzea ekar dezake, bai eta sortzen ari diren eta garatzen ari diren ekonomiek kapital-irteera handiak egitea ere. Horrek erronka handiak ekarriko lituzke, batez ere

kanpo-finantzaketako behar handiak eta zor maila handiak dituzten diru-sarrerara ertaineko herrialdeentzat.

Bestalde, Ngozi Okonjo-Iweala Munduko Merkataritza Erakundeko (MME) zuzendari nagusiak adierazi du txertoek gaixotasuna gelditzeko eta ekonomia suspertzeko aukera eman ziotela munduari. "Baina aukera hori alferrik gal liteke herrialde eta pertsona askok txertoetarako sarbide bera ez badute".

Gaur gaurkoz, izurritea geratu duen herrialde bakarra Txina izan da, eta, munduko botere oreka guztiz aldatu ez bada ere, atzeraldi ekonomikoaren larritasunak aldaketak ekar ditzake botere oreka horretan, mundu sistema berrezaugarritzeko prozesua eragin dezakeelarik¹. Ondorengo lerroetan aldaketa horretan eragin dezaketen faktore batzuk ikusiko ditugu.

¹ GRININ L, KOROTAYEV A (2012) Does "Arab Spring" Mean the Beginning of World



- Zorra mundu zabaleko protagonista berria izango da. Mundua zorpeturik dago.** Izurriteak behartu ditu gobernuak gastu publikoa areagotzera eta banku zentralak interesak murriztera. Horren ondorioz, estatuek ekonomiari eman zioten bulkada 24 bilioi dolarrekoa izan zen. Kantitate horrek munduko zorra handitu du. IIF Nazioarteko Finantza Institutuaren arabera, maileguen zenbatekoa 2281 bilioi dolarrekoa da guztira. Zorraren parterik inportanteena herri aberatsen gain dago eta, banku zentralak diru politikarekiko estimularekin segitu ondoren, munduko zorra 300 bilioikoa izan daiteke. Oleg Cherednichenko ekonomialariak iragartzen duen bezala, zorraren "kreditu burbuila" leher zitekeen, mundu mailako krisi latzari bidea emanez. Pentsa daitekeen bezala, azpigaratutako herriek ondorio lazarrienak pairatuko dituzte.
- Turismoak mundu mailako BPGari egindako ekarpenaren jaitsiera nabarmena izan da.** Munduko Bidaia eta Turismo Kontseiluaren (WTTC) arabera, 2020an sektore horrek BPGari egindako ekarpena %49,1 jaitsi zen, 2019koarekin alderaturik. Sektore horretan, 4,5 bilioi dolarren galera izan da, eta 62 milioi lanpostu galdu ziren.
- AEBek egindako dolar jaulkipenak hiperinflazioaren mamua piztu du.** AEBetako Erreserba Federalak uste du gobernuaren diru jaulkipenak eta bilioi askoko injekzioak inflazioa ekiditeko mugara heltzen ari direla. Ildo horretan, izurritearen hasieratik Senatuak onarturiko 1,9 bilioi dolarreko estimulu plana hirugarren erreskate plana da, eta Bidenen lehen garaipen legislatiboa. AEBetako langabezia tasa %6,2 da. 2021eko otsailean langabeziak handia izaten jarraitzen du, eta, analistek uste baino enplegu gehiago sortu bada ere, 10 milioi langabe daude (izurritearen hasieran, langabeen kopurua %5,7 zen).
- Inflazioa dela medio, Europako ekonomia geldirik dago.** Prezioen goranzko joerak Covid-19ak okerturiko ekonomiaren susperraldia oztopatu du, eta EBko zor publikoa BPGaren %100etik gorakoa izatea ekarri du. Orain gertatzen ari ez den bezala, 2008-12ko krisitik ateratzen lagundu zuen faktorea inflazioa eza izan zen. Eta faktore horrek erakutsi du kontsumo ondasunen, kontsumo publikoaren edota kanpo merkataritzaren inflazio tasen hazkundeari buruzko kezkak errealak direla.
- 2021ean Txinako BPGa %6 haziko da.** 2020an lortu zuen BPGaren %2,3ko hazkundera oinarriturik Txinako Gobernuak bere ekonomia %6 haziko dela esan duen arren, hainbat ekonomialarik %8 haziko dela diote. Inflazioa %3 izatea espero da, eta langabezia tasa %5,5 izango dela diote. Bestalde, Txinako Aduana Administrazio Orokorren arabera, 2021eko lehen bi hilabeteetan esportazioak %60 hazi dira (abenduan %18 ziren). Aipatutako 2 hilabete horietan, inportazioak %22,2 izan dira. Igoera horiek

ahalbidetu dute Txinako merkataritza %20 haztea. Ildo horretan, Txinak munduko merkataritza itun librerik zabalena (RCEP³)⁴ berretsi zuen martxoaren 8an. Proiektu horrek Artikoaren, Asiaren, Europaren eta Amerikaren arteko merkataritza bide berriak esploratzea ekar dezake.

- Latinoamerika munduan pandemiak gehien kaltetu duen garapen-eremua da.** Latinoamerikarako eta Kariberako Batzorde Ekonomikoak (CEPAL) 2021eko martxoan aurkeztutako txostenaren arabera⁵, eskualde horretako BPGa %7,7 uzurtu da eta 2,7 milioi enpresa itxi dira. Txostenak dioenez, pobrezia eta langabezia areagotu egin dira eskualdean, batez ere emakume gazteen artean. Era berean, CEPALen dokumentuak dio Covid-19ak eragindako heriotzen %27,8 Latinoamerikan gertatu direla (mundu osoko biztanleriaren %8,4 soilik dagokion arren). Hori dela eta, gehiengo sozial zabalek aldarrikatu egin dute premiazkoa dela larrialdietarako laguntzak mantentzea eta krisiaren eragin soziala arintzeko gizarte babes sistema unibertsalak zabaltzea (besteak beste, osasungintza eta botikak).

- 2013an, Afrikako Batasunak Agenda 2063⁶ onartu zuen,** kontinentearen hazkunde inklusiborako eta garapen iraunkorrerako esparru estrategiko partekatua lortzeko xedez. Covid-19ak larriki kolpatu du Agenda 2063, 40 milioi pertsona inguru pobrezia larrira kondenatuz. Izurritearen ondorioek luzaz eragingo diete Afrikako herriei eta biztanleei. Hala, Munduko Funtsak 2021ean Saharaz hegoaldeko ekonomia %3,3 uzurtuko dela aurreikusten du, eta ohartarazi du Afrikako bi ekonomia indartsuenen uzkurdua nabaria izango dela. Nigeriako BPGa %6,1 jaitsi zen 2020an. Hegoafrikako ekonomiak, ordea, %17,1 uzurtu du bere BPGa. Hazkunderaren beharakadarik handiena metal esportatzaileen artean jazo da; izan ere, BPGa %6 jaitsiko dela aurreikusten da, Hegoafrikako produkzioaren beharakada nabarmena dela eta. Petrolio esportatzaileei dagokienez, Munduko Funtsak BPGa %4 baino gehiago jaitsiko dela aurreikusten du. Aitzitik, baliabideak ez dituzten herrialdeetan hazkundera neurritz jaitsiko dela espero da. Bestetik, turismoaren mendeko ekonomiek (batez ere Cabo Verde, Maurizio eta Seychelleak) uzkurdua handia izan dute.

- Energiaren Nazioarteko Agentziak (AIE) egindako aurreikuspenen arabera, petrolioaren eskari globalak ez du 2023ra arte berreskuratuko pandemiaren aurretik izandako maila.** Era berean, petrolioaren merkaturia normaltasunera ez itzultzeko aukeraz ohartarazi du. Besteak beste, honako faktore hauen eraginez: lanaren eta garraioaren arloko ohitura berriak, auto elektrikoaren erabilera gero eta handiagoa edota trantsizio energetikoa.

² Horren baitan: estatuak, bankuak, enpresak eta herritarren zorrak

³ Munduko BPGaren %30

⁴ Txinaren, Japoniaren eta Hego Korearen arteko lehen merkataritza itun librea

⁵ "Latinoamerikako 2020ko panorama soziala" txostena: <https://www.cepal.org/es/publicaciones/ps>

⁶ <https://au.int/en/agenda2063/overview>





-2021ERA BEGIRAKO MUNDUKO JOERAK-

JOERA SOZIOLOGIKOAK

Izurritearen eta egoera ekonomikoen kostuak oso handiak dira eta ondorio oso ezberdinak uzten ari dira. 2021ean, une latzek eta hainbat aukerak ezaugarrituko dute giza garapena. Ikus ditzagun horietariko batzuk:

- 1. Izurriteari aurre egiteko neurriek are ikusgarriago bilakatuko dute erreproduzio sozialaren agertokia.** Veronique Gagok dioskunez, izurriteak ikusgai jarri ditu bizitza kolektiboa mantentzen duen azpiegitura eta, era berean, prekarietatea sortzen duen egoera. Zaintza lan guztiak, garbiketa eta mantentze lanak eta osasun sistemaren barruan nahiz nekazaritzan egiten den lana ezinbesteko azpiegitura dira gaur egun. Baina, era berean, plataformen kapitalismoak bultzatutako logistika eta entrega arlo zabal bat agertu da. Algoritmoen eta GPSaren metafisikaren handitasunak gorputz espezifikoak behar ditu, gorputz prekarioak. Gorputz horiek (batez ere migratzaileenak) hiri desertua zeharkatzen dute, eta janaria eta hornidurak entregatzeko bizitza arriskuan jartzen duten beste batzuen mantenua eta aterpea ahalbidetzeko azpiegitura dira.
- 2. Lurraldeen arteko eta jendartearen barruko ezberdintasun sozialak areagotuko dira.** Gaia ez da berria, baina arlo batzuetan ezberdintasun horiek handituko dira, generoa dela, hezkuntza arrakala dela... Munduko Funtsak 2021erako egin duen aurreikuspenaren arabera, 150 milioi pertsona muturreko pobrezia kondenatuak izan daitezke. Mundua polarizatzen ari da, eta polarizazio horrek bide eman die autoritarismoari eta muturreko indar erreakzionarioei.
- 3. Covid-19aren pandemiak 12 milioi emakumeri antisorgailuak eskuratzea eragotzi zien,** eta nahi gabeko 1,4 milioi haurdunaldi eragin zituen. Nazio Batuen Biztanleria Funtsak (UNFPA) argitaratutako txostenaren arabera, 12 milioi emakume horiek 115 herrialdetan bizi dira. Nazio Batuen Erakundeko sexu eta ugalketa osasunari buruzko agenzia nagusiak egindako adierazpenen arabera, pandemiak familia plangintzako zerbitzuetara sartzea eragotzi die.



4. Izurriteak lehen lerrora eramango ditu **etxeko pobrezia eta indarkeria matxista**. Nazio Batuek 14 gomendio eman dizkiete gobernuei, genero dinamika islatuko duen erantzun eraginkor bat gauzatzeari begira. Honako hauek dira gomendio horietako batzuk: datuak sexuaren arabera banatzea; emakumeen eta nesken behar zehatzetarako behar adina baliabide bideratzea; fase guztietan emakumeen parte-hartzea bermatzea; emakumeen erakundeei iritzia eskatzea; lehen mailako osasun arretako egituren zama arintzea; sexu eta ugalketa osasun zerbitzuetarako sarbidea bermatzeko neurriak hartzea; langile informalei, osasun langileei, etxeko langileei, migratzaileei eta pandemiak gehien kaltetutako sektoreei zuzeneko konpentsazio neurriak ematea; emakumeen ahalduntze eta suspertze ekonomikorako estrategia espezifikoak sustatzea. Agenda feminista jada nazioarteko agendan ere badago.

5. **2021. urtea txertoen urtea izango da.** Dagoeneko, erronka ekonomiko, politiko eta logistikoen garapenak erakutsi du txertoen banaketak bide kooperatiboa baino bide lehiakorra hartu duela. Osasun publikoaren eskubideari buruzko eztabaidarekin batera, medikamenduen dimentsio publikoaren beharra mahaigaineratu da, bai eta haien patentea liberatu beharra ere. Planetaren hegoaldeko herriek eta gatazka bizi duten herrialdeek txertoen aukera izan behar dute eta, horretarako, gobernuek eta nazioarteko erakundeek txerto eta medikamenduen metaketa eta banaketa publikoaren kontrola izan behar dute. Gaur gaurkoz, ordea, txertoen banaketa geopolitikaren lanabes arriskutsu bilakatu da.

6. **2021. urtea erabakigarria izan daiteke berreskurapen ereduak azalarazteko.** 2021ean ikusiko dugu zer faktorek eta ereduak eragiten dituzten berreskurapen azkarragoak, bidezkoagoak eta iraunkorragoak. Autoritarismoaren inguruko eztabaidarekin batera, populismoaren desagerpenak edo ezaugarritze berriak eztabaidetan tokia izango du, batik bat Donald Trumpen galera espero bezain handia izan ez delarik.

7. **Digitalizazioa.** Izurritea erregairik idealena izan da datuak eskuratzeko eta metatzeko. Joera horrek kontsumoa areagotu du, lanaren arloan eta hezkuntzan ezagutzen genituen pautak aldatu ditu eta egitura aldaketak ekarri ditu. Bestela, digitalizazioa enpresa bakan batzuek biltzen dute, eta haien boterea estatuarekiko harremana eta estatuaren kontzepzioa bera aldatzen ari da, desarautze marko bat egituratu dutelako. Digitalizazioaren hedapena eragin nabarmena izaten ari da hiru esparrutan: fiskalitatean, konpetentzian eta burujabetzan⁷. 2021ean ikusiko dugu EBko eta AEBetako agenda digitalak gai ote diren GAFA deitzen diren konpainia digitalak arautzeko, konpainia horien jarrera oligopolikoak geldiarazteko eta fiskalitate digitalari buruzko neurriak gauzatzeko. EBk bidea definituta dauka eta badirudi Bidenen gobernuak ere hala egingo duela. Jakina denez, gai hau geopolitikaren gai beroa da, AEBen eta Txinaren⁸ arteko lehia eta gatazka iturri delako eta bakoitza bere eragin esfera sortzen ari delako. Baina EB⁹ eta Japonia ere arreta berezia erakusten ari dira, interes lehiatik kanpo geratu nahi ez dutelako. Bestetik, planetaren hegoaldeko hainbat herrialdek kezka agertu dute datuen kolonialismoaz. Azkenik, zalantzak agertu dira teknologia horiek demokratizazioa eta parte-hartzearen kultura hedatzeari dagokionez dituzten dohainez. Egia da digitalizazioak harremanetarako eta militatzeko eredu berriak sortu dituela, bereziki COVID garaian; ikusteko dago, ordea, nola zizelkatuko dituen pentsamendu eta jarrera kolektiboak.

8. **Burujabetzekiko atxikimendu zabalagoak.** COVID ondorengo garai hauetan, hiri eta aglomerazioetatik eratorriko arazoek, kontsumo ohituren aldaketek eta joera autokratikoen hobeto bizi beharraren, jendea boteretzearen, ekonomia politiko-sozialaren eta energia eraginkortasunaren aldeko apustuak areagotu dituzte.

⁷ SRNICEK Nick (2018): Capitalismo de plataformas

⁸ Gogoratu Txinak yuan digitala abiatu duela hegoaldeko herrialdeei begira. Diru horrek

⁹ EBko Digital Services Act (DSA) arauak merkatu bakarra babestea du helburu, eta behartzen dituelarik



fluktuazio txikiagoa izango du eta Txinako Banku Zentralak sustatzen du datuak plataforma haudien esku ez geratzea, txikiagoak direkin konpartitzea



-MUNDUARI SO-

MUNDUA MULTILATERALA IZANGO DA?

Orain arte ezagutu dugun multilateralitateak segituko duen edota zerbait diferentea gauzatuko den zehaztea nekeza da. Izurriteak agerian utzi ditu gobernantza globalaren disfuntzioak eta aldaketa substantzialak: nazioarteko erakundeen isiltasuna, Txinaren boterea eta izurritearen kudeaketa politiko eta sanitarioa eta horren inpaktua, ordena liberalaren noraeza eta pentsamendu protekzionistaren gailentzea. Halere, elementu horiek guztiak aski al dira munduaren ordena berri baterantz abiatu garela baieztatzeko? Ikus ditzagun, lehenik, munduko ordena zeharkatzen duten hainbat joera:

1. Covid-19ak **bestelako geopolitika bat ezaugarritu dezake**. Izan ere, bakterioak sortu duen izurrite aniztuna gainditzeko bidean zein txertoa eskuratzeko lehia lidergoa lortuko duen herrialdeak

bere jarrera geopolitiko eta munduan daukan ospea indartuko ditu. Izurritea kontrolatzen ez den bitartean, herrialde askok botiken eta txertoen esportaziorako murrizketa ezarriko dute. 2021era begira, horrek gatazka geopolitikoak sorraraz ditzake, eta pertsonen mugikortasuna nahiz kulturen arteko trukea mugatuko ditu.

2. **Nazioarteko gobernantzaren ahuleziak** bi erantzun ahalbidetu ditu: erantzun kooperatiboak eta erantzun protekzionistak, erreakzionarioak. Erantzun horien arteko talkak izurriteari aurre egiteko material sanitario eta farmazeutikoaren banaketaren garaian ikusi ahal izan genituen arren, txertoen banaketarekin berriro gertatzen ari dira. Osasuna ongizate unibertsalaren oinarria izatetik diplomaziarako lanabesa izatera pasatu da.



3. Txina eta AEB **elkarrekiko dependentzia murrizten** saiatuko dira. Lehia, ordea, lau esparrutara eramango dute: aldebiko tarifek egituratzen duten merkataritza-harremanen konplexutasuna; teknologien arloan eta, batez ere, 5Gren esparruaren barruan erdieroaleak eta inteligentzia artifizia; sektore estrategikoetako politika industrial; eta Txinaren burujabetzari dagozkion auziak (Hego Txinako itsasoa, Taiwan eta Hong Kong). Lehia horiek eragin- eskualde berriak bilatzea ekar dezakete, eta Txina urrats berria ematen ari da arlo horretan. Zetaren korridorearekin batera, Artikoko zetaren korridorea edo yuan digitala adibide batzuk dira.

4. Aurrekoaren ildotik, Txinako, Thailandiako eta Arabiar Emirerri Batuetako banku zentralak eta Hong Kongeko Diru Agintaritzak **Diru Digitaleko Banku Zentral Anizkunerako Zubia** (Multiple CBDC Bridge) proiektua abiarazi zuten, CBDCk mugaz gaindiko ordainketen arloan duen aplikazioa aztertzeko. Proiektuaren parte hartzaileek mugaz gaindiko kapital transferentzietan, nazioarteko merkataritzako likidazioetan eta dibisa transakzioetan m-CBDC zubia aplikatzeko bideragarritasuna ebaluatuko dute. Ikerketa proiektuak ingurune egokia sortuko du Asian eta beste eskualde batzuetako banku zentral gehiagorentzat.

5. Estatu Batuetako administrazio berriak **geometria aldakorren alde aniztasuna** suspertzeko ikuspegiak itxaropena zabaldu duen arren, gauzak ez dira hain garbiak izango. Zenbait kasutan, administrazio horrek mundu mailako erakundearen eta agendaren protagonismoa bultzatuko du (adibidez, Osasunaren Mundu Erakundeak funtsezko papera izango du). Beste kasu batzuetan (hala nola Segurtasun Kontseiluan eta Munduko Merkataritza Erakundearen) konponbide integralik ez izateak eta horiek erraztu beharko lituzketen mekanismoen funtzionamendu eskasak etengabeko blokeoak eta aurrera ez egitea erraztuko dituzte, gaikako agenda partekatuei bidea zabalduz.

6. COVID-19aren beste ondorio bat **krisi humanitarioa okertzea** izan da eta izango da. Nazioarteko laguntzaren eskuragarritasunaren murrizketak zein zailtasun logistikoak okertze horren oinarrian daude. Yemen muturreko adibidea da, baina ez da kasu bakarra izan. Nazio Batuen Erakundeko Giza Gaietarako Koordinazio Bulegoak (OCHA) ohartarazi du 2020ko urritik behar zituen funtsen %38 baino ez zituela jaso. FAOk 2020an egindako urteko txostenean ohartarazi zuen munduan 83 eta 132 milioi pertsona gosez edota desnutriturik daudela. Municheko Segurtasun Konferentzia prestatzeko txostenak "polipandemia" gisa deskribatzen du egoera, errepresioaren hazkundera, instituzioen hauskortasuna eta indarrean dauden hainbat indarkeria mota nabarmenduz. Pandemiari egokitu zaion beste indarkeria mota bat krimen antolatua da. Gainera, 2021ean krisi humanitarioak larriagotu daitezke, hondamendi naturalak direla medio. Azkenik, A. Guterres Nazio Batuen Erakundeko idazkari nagusiak Covid-19ak gatazka politiko-militarrak dituzten eskualdeetan utz ditzakeen giza ondorioez eta krisi berriez ohartarazi du.

7. Izurriteak Kubaren, Venezuelaren eta Iranen kontrako **blokeoa**

areagotu du, sistema kapitalista eta AEBen jarrera zapaltzaile eta hiltzailea agerian utziz, kaltetuak populazioak direlako eta ez agintari politikoak. Ildo berean, Israelgo Gobernuak txertatzeko aukera ukatu die palestinarrei. Kapitalaren interesak pertsonen bizitzaren gainetik jartzea sistema hegemoniko honen praktika krudela da.

8. **Uraren beharra eta balio estrategikoa.** Mediterraneoko eskualdean 180 milioi pertsonak ur eskasia dute. Ura oinarritzko beharra zein pertsonen eskubidea da. Haren prezioa nekez zehaztu daitezkeen arren, izurritearen garaian uraren balioak muga guztiak gainditu ditu eta, ondorioz, lurraldeen arteko desparekotasunak areagotu dira eta areagotuko dira. Nazio Batuen arabera, munduan 3 mila milioi pertsonak ez dute ura eskuratzeko behar bezalako biderik. Haietatik, 74 milioi herrialde arabiarretan bizi dira. Gainera, bi bilioi pertsonak ur gabezia dute. Aurreikuspenen arabera, 2050erako uraren kontsumoa %40 handiagoa izango da. Beraz, hurrengo urteetan ura balio handiko gaia izango da eta, era berean, gatazka iturri.

9. **Entitate subalternoen garrantzia.** Krisi aniztunak eta birzentralizazioerako joerak estatuaren beharra azpimarratu dute. Demos berriak sortzen ari dira, eta estatuaren dimentsio utilitarista edo pragmatikoa nagusitzen ari da demos berri horietan. Eskozia edo Katalunia horren adibideak izan daitezke. Kasu hauetan, estatua publikotasunaren eta jendearen ongizatearen segurtasun emaile gisa ikusten da. Globalizazioak gutxitu edo hustu egin ditu estaturik gabeko nazioek zituzten eskuduntzak, zentroarekiko are menpekoagoak bilakatuz eta heldulekuak lausotuz. Dinamika luze eta integral horren ondorioz, burujabetza material eta organikoaren aldeko ahotsak gero eta sektore zabalagoetara heltzen ari dira.





-MUNDUARI SO-

2021 ERAKO GEOPOLITIKAKO HAINBAT AUZI

TXINAREN ETA AEBREN ARTEKO LEHIA

Izurritearen kudeaketak Txinaren eta AEBen arteko botere arrakala txikitu du, eta agerian utzi du politika, ekonomia, teknologia, segurtasun eta ideologia gaietan haien artean dauden desberdintasunak benetakoak direla. Txinaren eta AEBen arteko harremana okerrera egiten ari zen, 2018tik¹⁰ batez ere, eta gatazkak toki hartu du merkataritzaren, finantzen, teknologiaren, garapen ereduaren eta itsas segurtasunaren arloan. Covid-19ak ez ditu gauzak konpondu, eta munduko ordenari dagozkion zenbait gai korapila ditzake 2021ean. Hainbat adituk¹¹ azpimarratu dute mundua bi bloketan bana daitekeela gero eta gehiago, Huawei eta Belt and Road Initiative (BRI) adibideak aipatuz. Huaweiren

kasuak erakusten du Estatu Batuak aliatu bila ari direla Txinarekin lotura teknologikoak estutzeko. Txina, berriz, bere eragin globala sustatu nahian dabil, sare propioa eraikiz eta zetaren korridorearen edo BRIren bidez. Iritzi horren arabera, litekeena da bi bloke sortzea, hurrenez hurren Txina eta AEBak buru izango lituzketen bi bloke (Rachman, 2020). Horrela, Gerla Hotz Berriaren ideia osatzen joan da.

Gure iritziz, gerla hotz berri baterako oinarri politiko zein ekonomiko sendorik ez dago, bi potentziek beren arteko lehiak kudeatzeko esperientzia metatu dutelako, Txina Sobiet Batasuna ez delako, eta oraingo AEBak lehengo berdina ez direlako. Hala ere, esan beharra dago bi estatu horien arteko lehiarako arriskuak egon badaudela, eta hiru azpimarratuko ditugu: AEBen barne eta kanpo politika, txinatarrek eta

¹⁰ Trumpek ezarritako "National Security Strategy" zeritzonak atzean uzten zituen etsaitzat jo zuen

¹¹ Gideon Rachman(2020)

Txinaren eta AEBen artean elkarriketa sustatzeko lau mekanismo eta Txina



amerikarrek elkarrekiko daukaten pertzepzio negatiboa, eta aditu batzuek ¹²azpimarratzen dituzten Txinaren kanpo politikaren joerak.

Segur aski, 2021eko gai beroaren aurrean gaude. Galdera, ordea, hauxe da: saihestu ahal dute bi potentzia horiek "Tuzididesen tranpa"¹³ eta Gerra Hotz berria?

INDO -PAZIFIKOKO ESKUALDEKO DINAMIKA GEOPOLITIKOA

Potentzia handi eta ertainen protagonismoa adierazteko testuinguruan, eskualde horretako ingurune geopolitikoak are ezegonkorrago bihurtu liteke 2021ean. Australiak, Indiak, Japoniak eta Estatu Batuek osaturiko Lau Aldeko Segurtasun Elkarrizketa (Quadilateral Security Dialogue) eskualde horretako potentzia ertainek geopolitikan eragiteko dituzten estrategien erakusgarri da. QUADek Indo-Pazifikoko NATOren enbrioi gisa aldarrikatzen du bere burua eta Pekinen kontrako oposizio frontea ahalik eta gehien zabaltzea du helburu. Duela gutxi ere, Australiak, Indiak eta Japoniak "Supply Chain Resilience Initiative" iragarri zuten. Hori dela eta, Asiako Hego-ekialdeko Nazioen Elkarteko (ASEAN) kideek eskualdeko integrazio ekonomikoa indartu beharko lukete, epe ertainera eta, bereziki, Eskualde Osoko Ekonomia Elkartearen (RCEP) bidez. Hala ere, Txinaren eta Estatu Batuen arteko lehia estrategikoak egoera zaildu dezake. Gainera, Europako zenbait herrialde edo EB bera are aktiboago bilaka daitezke eskualde horretan. Beraz, esan daiteke mundu multilateralak definitzen ari dela eta aktore edota potentzia ezberdinen arteko joko asimetrikoa gaurko nazioarteko ordena definitzen ari dela. Ildo horretan, eta jadanik agerian zegoenez, nazioarteko ordenaren norabidea Pazifikotik pasatzen da.

EUROPAR BATASUNEN ZELAIAN BI AUZI

EBren errekonferentzia planak (Ikus aurreko lanak) eta Europaren etorkizunari buruzko debateak 2021. urtea definituko dute.

Izurriteak Europari buruzko debatea atzeratu du eta, horrela, 2021eko maiatzaren 9ko Estrasburgon abiapuntua ezarri du. Konferentziak pertsonen beharretarako erantzunak eta EBren egitura instituzional berri baterako proposamenak eskaini beharko lituzke. EBko ezkerreko taldeak jendea ardatz duen proiektu batean eta itunen aldaketan jarriko du arreta. Herritarren benetako parte-hartzea bermatuz soilik eraikiko dugulako Europaren egitura instituzionalean beharrezkoak diren aldaketak ekarriko dituen prozesua. Hala, ezkerreko adigintza da Europako langileen, gazteen, migratzaileen, emakumeen eta baztertutakoen ahotsa areagotu eta bermatu behar duen prozedura eta prozesuan bertan. Baina, era berean, itun berrien defentsa egingo du, erreforma sinbolikoak ez direlako nahikoak izango klima aldaketaren

kontrako borrokari, desperekotasunari, lurraldetasunaren egiletza politikoari eta EBren kohesioa berreskuratzeari dagokionez.

Ezkerreko taldeak azpimarratu du herritarrek eta eurodiputatuek erabat parte hartu behar dutela eztabaida prozesu horretan. Eztabaida, erronka gisa, oso interesgarria da. Ez gaude 2005ean¹⁴, eta ordezkari politikoek, aktore pribatuek eta mugimendu sozialek bestelako protagonismoarekin jokatu nahiko dute. Hori dela eta, Europaren etorkizunari buruzko eztabaidak aintzat hartu beharko lituzke debatearen egitura, erabakitzeko formatuak, eztabaidaren arauak (kontsentsua edo ez), agendan sartu beharreko auziak (herritarren eskaerak, gaia eta botere eskala nazionala+erregionalak), herritarren eta ordezkarien arteko loturak... Debatearen hasiera finkatu bada ere, egitura eta edukiak oso lausoak eta zalantza askoren iturri dira oraindik.

Funtsean, potentzien arteko tentsio geopolitikoak handitzen ari diren garai honetan, EBk bere funtzioak eta munduan dagokion tokia definitu beharko ditu. Horrek, derrigorrez, arautze digitala eta ingurumenari buruzko nazioarteko arau eta irizpideak definitzea eskatzen dio zaharkitzen ari den Europar Batasun honi.

INGURUMENARI BURUZKO AGENDA POLITIKOEN AZELERAZIOA

2021ean, ingurumenari buruzko agenda politikoaren azelerazioa ezagutu dezakegu. Jadanik, EBk zehaztu egin du 2050erako ezarritako itun berdearen helburua: karbonoaren neutralizazioa. Txinak ere xede horrekiko atxikimendua agertu du, eta baliteke beste potentzia emergente batzuek zailtasunez segitzea ildo horri (India, adibidez). Bestalde, Bidenen administrazioa Parisko akordiora itzuli izanak ingurumenari buruzko agenda sendotu du.

Ingurumenaren auzia erronka handia da, eta begirada Nazio Batuek 2021eko azaroan Glasgow egingo duten Cop26 konferentzian jarrita dago. Are gehiago kontuan hartuta Cop25eko erabakien ahuleziak ekarri zuen atzerapena.

ERRUSIAN ALDAKETAK 2021RAKO?

Errusia bezalako herrialdeetan, gaur egungo arazoek ekonomiaren hazkundera erabat geldiaraz dezakete. Horrek Errusiaren botere ekonomikoaren galerari eragingo dio, nahiz eta Putinen gobernuak kanpo politika aktiboagoa eta oldarkorragoa egiten saiatu. Zernahi gisaz, Errusiaren edo Putinen gobernuaren ahulezia horren adibidea Bidenek Errusiaren kontra eginiko adierazpenak izan daitezke.

Hala ere, epe ertainera, Errusiako egoera ekonomikoak okerrera egin dezake. Barne-egoera politiko larriagotu eta desegonkortasun politiko eta soziala areagotu daiteke. Lurralde Petrolio Esportatzaileen Erakundeak eta Errusiak osatzen duten LPPE+ taldearen arabera, Errusiak

¹² Christensen (2020)

¹³ Graham T. Allison politologo estatubatuarrek egin zuen ezagun termino hori, Tuzidides Atenasko historialari eta militar klasikoak Peloponesoko Gerraren Historian egindako aipamen batean oinarrituta. Allisonek terminoa erabili zuen deskribatzeko zer gertatzen den sortzen ari den potentzia batek (Atenasen adibidea) botere nagusi baten estatusa (Espartaren adibidea) zalantzan jartzen duenean. Allisonek kontzeptu horretan sakondu zuen bidean.

¹⁴ Europako konstituzioari buruzko debatea egin zenean



galera ekonomikoa leuntzea lortuko du. Aipatzekoa da munduko ordenaren aldaketa garaiak eta krisiaren garapen depresiboa guztiz lotuta daudela. Hain zuzen ere, ekonomiaren krisialdian fenomeno politiko gatazkatsuak areagotzen direlako, munduko ordena kolokan jarri eta printzipio eta aktore berrien bila hasiz.

LATINOAMERIKAREN MENPEKOTASUNIK GABEKO INTEGRAZIOAREN BEHARRA

Latinoamerika olatu aurrerakoiaren olatu berri baten aurrean egon daiteke. Argentinako eta Boliviako gobernu aldaketak, Txileko mugimendu sozialen indarra eta protagonismoa, Ekuadorko eta, beste maila batean, Paraguai eta Brasilgo ezker...; elementu horiek guztiek itxaropen politiko eta sozialerako espazioa zabaldu dute. Galdera da ea herrialde bakoitzak bidea egin dezakeen edo "mendekotasunik gabeko integratze" gabe eskualde horretarako irtenbiderik ote dagoen.

LAWFAREREN GERRA POLITIKOA

Lawfare bide judizial-mediatikoen bidez egiten den gerra politikoa da, eta gerra horrek iritzi publikoarentzat ezkatuta dauden interes ekonomiko, politiko eta geopolitikoak ditu. Azken urteotan, taktika hori hainbat buruzagiren kontra eta militante ohien nahiz gobernu batzuetako funtzionarioen aurka erabili da Euskal Herrian, Frantziako Estatuan, Espainiako Estatuan, Argentinan, Ekuadorren, Brasilen, Bolivian, El Salvadorren, Venezuelan...; eta ortodoxia neoliberalak garatzen du. Lanabes hori autoritarismoa gailentzen ari den garaian gelditzeko etorri da, eta 2021era begira haren aplikazio zehatza eta are zabalagoa ikusiko dugu.

ESKUIK MUTURRAREN HEDAPENA

Eskuin muturraren hedapena planeta osoan zabaldu da. Europan zein munduko beste herrialde batzuetan izandako hauteskundeek agerian utzi dute indar horien gorakada. Lurralde bakoitzean dauden berezitasunak gain, eskuin muturraren espazioa okupatzen duten indarrek hainbat dinamika eta logika komun partekatzen dituzte: sistemaren aurkako erretorika, jendartearen kontzepzio autoritarioa, nazionalismo txobinista, xenofobia, arrazakeria, "genero ideologia" deiturikoa eta krisiaren errudunak identifikatzeko adostasuna. Jadanik, elementu horiek guztiek errealitatea ulertzeko marko kezkarriak utzi dizkigute munduan zehar, pertzeptzioa eta zentzu komuna eskuinerantz eramanez.





-MUNDUARI SO-

EUSKAL HERRIARI BEGIRAKO ZENBAIT ONDORIO

Covid garai honetan hiru krisi nagusi bizi ditugula errepikatu dugu maiz: larrialdi klimatikoa, biosoziala eta ekonomikoa. Arestian egin dugun irakurketan krisi horien akoplamenduak eragin dituen ondorio politiko, sozial eta ekonomikoei begiratu diegu. Aldaketa garaiak bizi ditugu, eta, beraz, ziurgabetasunez beteriko denbora. Dakigun bakarra, ordea, zera da: nazioarteko agertokian botereen oreka berrantolatzen ari dela eta munduko ordena Pazifikorantz begira ari dela. Mugimendu horiek azkarrak edo geldoak badira ere, eragina dute gure Herrian eta gure estrategian. 2020an ikusi ditugun hainbat ondorio aipatuko ditugu atal honetan, 2021ean mantenduko direnak gogoraraziko ditugu, eta 2021ean zehaztuko diren beste batzuk jasoko ditugu.

1. Botere politiko eta ekonomikoaren oreka globala **Pazifikora begira dago**. Aurrerantzean, gainera, Indo-Pazifikoko eskualdea mugimendu askoren joko zelaia izango da. Gu bezalako herrientzako kontuan hartzeko faktorea dugu, aldaketak eragin ditzakeelako gure ekonomian eta geopolitikan.

2. Izurriteak hainbat **joera geoekonomiko** larriagotu ditu: desglobalizazioa, produkzioaren birlokalizazioa, jarrera protekzionistak eta desakoplamendua, eta, eskala txikiago batean, lankidetzak. Une hau, bereziki, Burujabetzak (pluralean) azkartzeko momentua izan daiteke, eta herri bezala ditugun gainbalioak lehenesteko aukera bideratu ahal izateko garaia.

3. Izurriteari aurre egiteko konfinamendu neurriek estatuen **zorra** areagotu dute, eta hori munduko ekonomiaren arazo gakoa izango dela dirudi. Hurrengo hilabeteetan jarraitu beharreko auzia izango da, epe motz eta ertainean agertoki sozioekonomikoari eragingo diolako, batik bat Euskal Herriko hainbat sektore estrategikotan (industria, automozioa, turismoa, digitalizazioa).

4. Izurrite honetatik **estatura indartuta** aterata da. Estatu egiturak behar ditugu gure herriaren beharrei erantzuteko, baina, era berean, trantsizio biderako eskala ezberdinetako instituzionalizazio berria



artikulatu ahal izateko.

5. 2021eko maiatzaren 9an, **EBk Europaren etorkizunari begirako konferentziari hasiera** emango dio. Subalternitate estatalen edo Estaturik gabeko nazioen arteko elkarlanak erronka handia du agenda bat osatzeko eta instituzioek eta herritarrek debate horretan parte hartzeko bide orria definitzeko orduan. Subalternitateak, ahotsa izatearekin batera, erabakimen instituzionala eta burujabetza materiala behar dituelako. Konferentziak 2022ra arte iraungo du.

6. Debate horretan, **ezker feminista eraldatzailearen** aktore ezberdinek kritikan, kontraesanetan eta Europa demokratiko erradikala bisualizatzeko ekimenetan parte hartu behar dugu, dimentsio publiko-komunitarioa indartuz eta gure jendarteak artikulatzeko formula berriak aurkeztuz.

7. **Transizio ekologikoari** espazio erreala emateko xedez, udalgintzatik integrazio egituretaraino definitzen den bidea ere zehaztu behar dugu debate horretan. Aukera ona izan daiteke Estaturik gabeko nazioek ildo horri ekin diezaiozun.

8. Autoritarismoaren adierazpena den **Lawfare** formularen aurrean erantzuteko beharra dugu. Horretarako, nazioarteko elkarlan sare instituzional zein herritarra osatzeko aukera eta beharra dugu.

9. **Eskuin muturra** ez da indartsua izango gure herrian ezkerria indartsu eta antolaturik dagoen bitartean. Halere, mugimendu horrek zabaltzen dituen balore, diskurtso eta pertzeptzio markoak arreta handiz segitu behar ditugu, dominazio sistematik eraginkorra ikusten ez dena baita. Formakuntza politikoa eta antolakuntza nahitaezko lanabesak dira, beraz, bestelako diskurtsoak eta markoak sortzeko..



